



## **OGASUN ETA EKONOMIA SAILAK 50,8 MILIOI EUROKO AURREKONTUA IZANGO DU 2018an**

- **1,9 milioi euro gehitzen da 2017aren aldean**

Ogasun eta Ekonomia Sailak 50,8 milioi euroko aurrekontua izango du datorren urterako. 2017aren aldean, 1.928.000 euroko gehikuntza erregistratzen du, % 3,9.

Ogasun eta Ekonomia Sailaren gastuaren zatirik handiena egitura-izaerakoa da. Langileen gastua, sailkapen ekonomikoan lehena, 519.400 euro igo da % 1,5eko ordainsari-gehikuntzagatik, Gizarte Segurantzaren kotizazioen oinarriengatik eta langileen aseguruaren sarien gehikuntzagatik.

Funtzionamendu-gastuak % 7 gehitu dira joan den urtearen aldean eta transferentzia eta diru-laguntzen kasuan, % 2,6ko gehikuntzarekin, nabarmena da EUSTATen jardueraren finantzaketa.

### **Ogasun eta Ekonomia Sailari atxikitako erakundeak:**

- Euskal Estatistika Erakundea, EUSTAT: 12.994.000 euro.
- Lehiaren Euskal Agintaritza: 1.220.000 euro.
- Finantzen Euskal institutua: 5.163.884 euroko ustiapen-aurrekontua eta 126.907.233 euroko kapital-aurrekontua, batik bat zentro teknologikoei, ETE berritzaileei eta kapitalizazio ertaineko enpresei laguntza finantzarioa emateko programen kudeaketarako.